

**ZUMAIAKO A.U.-01 “ALDE ZAHARRA”-n
KOKATUTAKO ARRITOKIETA KALEA 8
LURSAILAREN HIRI BERRIKUNTZAKO PLAN
BEREZIA.**



2018ko Uztaila

Sustatzailea:
MALACATOUR, S.L.
Abokatua:
Igor Cubillo Eguiguren
Arkitektoak:
Ekaitz Uribe Rus
Nagore Tolosa Irazusta

MEMORIA.

I. SARRERA

1. Aurrekariak, xedea eta proiektuaren deskribapena.
2. Komenigarritasuna eta egokitasuna
3. Sustatzailea eta idazle taldea.

II. JARDUKETAREN HIRIGINTZA INFORMAZIOA

1. Indarrean dagoen plangintza.
2. Aldatzen diren elementuak.
3. Ingurumen-Ebaluazio Estrategikoa
4. Egikaritzea antolatze eta kudeatzeko jarraibideen azterketa
- 5.- Jarduken ordenantza.
- 6.- Bidegarritasun ekonomiko eta finantzieroaren Azterlana eta Azterketa Ekonomikoa eta Jasangarritasun Ekonomikoa Ebaluatze Txostena

III. PLANOAK.

Informazio Planoak
III.01 Gráficos

IV. ERANSKINAK

Katastroko fitxa

2018ko ekainaren 8ko Alkatetza Ebazpena (2018HKON0004-003-001 kontsultari erantzuna)

A) MEMORIA

I.- SARRERA.

1. Aurrekariak, xedea eta proiektuaren deskribapena.

Zumaiako, Arritokieta Kalea 8. zenbakian kokatutako eraikina izango da dokumentu honen xedea (Azpeitiko Jabetza Erregistroan izena emandako 630 zenbakidun erregistro finka; partzela katastralak: 3035196 E eta 3035195 T Lursailak – 604). Jabetzak bertan jarduera turistiko berezia ezartzeko nahia du. Hotel berezia, jasangarria eta ingurumenarekiko begirunetsua, eraikinaren izaera eta arkitektura zein tokikoa errespetatuko duena.

Proiektu honen sorburua bestelako jarduera turistikoa sortzea da, jasangarritasuna eta errespetua oinarri dituen, modu zabal eta orokorrean ulertutako errespetua. Tokiaren errespetua, eraikinaren ezaugarriekiko, historiaren zein usadiozko arkitekturaren errespetua. Ingurumenarekiko errespetua, naturalak eta tokikoak diren materialak erabiliz, eta batik bat esku-hartze doitua eta arrazoizkoa planteatuz. Eraikina biziberritzeko beharrezkoak soilik. Gizakiekiko errespetua ere izango da, osasuntsuak eta erosoak izateaz gain, ederrak eta atseginak diren espazioak sortuz.. Jarduera turistiko desberdina proposatzen da, lasaia, jasangarria, hurbila, egun ohikoak diren jarduera frenetikoetatik aldenduz. Bestetik, Zumaian dauden beste jarduera turistikoekiko errespetua bilatuko da, jarduera berri eta desberdina izango da, udalerriri balioa ekarriko diona, txikia bada ere.

Hotel-jarduera berezi honek programa laburra izango du (bost logela bainugela banarekin eta zerbitzu komunak). Egungo solairuak hotel erabilera berriari egokitzea bilatuko da, estalkipeko solairuaren erabilera egokirako txoritokiekin edo txapituladun leihoak irekiko dira.

Arkitektura eta eraikuntzari dagokionez, bioklimatika eta bioerakuntza irizpideak erabiliko dira, espazio eroso eta osasungarriak eraikitzeko. Eraikina energetikoki oso eraginkorra izango da (*energia kontsumoa murrizten ahaleginduko gara, energia kontsumo ia nulua duten eraikinetara hurbilduz*) eta aztarna ekologiko txikia duena

(helburu horretarako sistemak proposatuko dira, tokiko sistema eta material naturalei lehentasuna emango zaie)

Indarrean dauden 2004ko Zumaiako AASS-en arabera lursaila A.U.01 “ALDE ZAHARRA” eremuaren barruan dago.

2. Komenigarritasuna eta egokitasuna

2018ko otsailak 9an, Oreka Arkitektura bulegoak, MALACATOURS, S.L.en izenean, lursailaren hirigintza ezaugarrien ingurukoak eta aipaturiko erabilera baimentzeko beharrezkoak diren izapide administratiboak ezagutzeko hirigintza kontsulta bat aurkeztu zuen.

Kontsultak (2018HKON0004-003-001) 2018ko ekainak 8ko data duen alkatetzaren ebazpenaren bitartez jaso zuen erantzuna. Gorka Arregi Gaztañaga Udal Arkitektoaren txosten teknikoa oinarria zuen horrek, jarraian testu honen transkripzioa:

2.2. Analisia/ Análisis.

La ficha urbanística del AU01 no establece la ordenación pormenorizada del ámbito. Consolida la edificación existente y remite la ordenación pormenorizada a la redacción de un Plan Especial para todo el ámbito.
Siendo esto así, tenemos que con la normativa en vigor la edificación sita en Arritokieta tiene una calificación residencial y no esta destinada exclusivamente a un uso hotelero, luego no se puede autorizar este uso.

La ley 2/2006 en su artículo 70 y 71 establece lo siguiente:

	Artículo 70.- Plan especial de ordenación urbana. El plan especial de ordenación urbana tiene por objeto desarrollar la ordenación estructural del plan general
--	--

ZUMAIAKO A.U.-01 “ALDE ZAHARRA”-n KOKATUTAKO ARRITOKIETA KALEA 8 LURSAILAREN HIRI BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIA.

	mediante el establecimiento de la ordenación pormenorizada de aquellas áreas de suelo urbano para las que el plan general permite diferir dicha ordenación. El plan especial de ordenación urbana podrá ser así mismo utilizado para modificar la ordenación pormenorizada del suelo urbano contenida en la documentación del plan general.
	Artículo 71.- Plan especial de renovación urbana. Los planes especiales de renovación urbana podrán tener por objeto el desarrollo de actuaciones concretas que, conservando la estructura fundamental de la ordenación anterior y sin alterar la edificabilidad urbanística, se encaminen a la descongestión del suelo urbano, a la creación de dotaciones públicas y equipamientos colectivos privados, al saneamiento de barrios, a la regeneración y rehabilitación urbana, a la reforma interior, a la resolución de problemas de movilidad o de estética, a la mejora del medio ambiente o de los servicios públicos y a otros fines análogos.

Viendo esto el que suscribe el presente Documento entiende que previa a la concesión de la Licencia se debería redactar un Plan cuyo objeto sería el desarrollo de una actuación concreta que, conservando la estructura fundamental de la ordenación anterior y sin alterar la edificabilidad urbanística, se encaminen a la creación de un equipamientos colectivos privado.

Plan berezi honen oinarria, 2/2006ko, ekainaren 30eko, lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legean dago, horren 59.2.c.6 eta 71. Artikuluetan aurreikusten den moduan. Bere helburu eta xedea ekipamendu kolektibo pribatua sortzea da. Honez gain jarduketak aurreko antolamenduaren funtsezko egitura gordetzen du, esaterako, bestak beste, hirigintza eraikigarritasuna mantenduz.

Horren izapideak aipatutako Legearen 95tik 97rainoko artikuluetan arautzen dira, edukia aldiz 68 eta 69.3 artikuluetan.

Plan bereziaren helburua, hiri-lurzoru finkatuan kokatutako lursailaren sailkapen xehatua aldatzea da. Hotel ekologiko txiki baten jarduera zein horrekin lotutako hirugarren sektoreko erabilerak (ostalaritza negozioa) ezartzeko asmoz.

Guzti hau, indarrean dauden Zumaiako AASS-en ezarpenekin bateragarriak diren baldintzak planteatuz, egiturazko antolamenduko baldintzak aldatu gabe. Horiek urratzen ez dituzten antolamendu xehatuari dagozkion zehaztapenak ezarri.

3. Sustatzailea eta idazle taldea.

Plan Berezi hau “MALACATOURS, S.L.”-k sustatua da (IFK: B-92177963, Helbidea: Marbella, Alduar kalea 23zk). Idazle taldea Oreka Arkitekturako Ekaitz Uribe Rus eta Nagore Tolosa Irazusta arkitektoek eta Igor Cubillo Eguiguren Abokatuak osatzen dute.

II.- JARDUKETAREN HIRIGINTZA INFORMAZIOA

1. Indarrean dagoen plangintza

AU01 “Alde Zaharra” eremua arautzen eta aurreikusten duten zehaztapenak indarrean dauden eta 2004ko otsailak 17an behin betiko onarpena jaso zuten Zumaiako AASS-en Berrikuspen Dokumentuak jasotzen ditu.

Eraikinen ezaugarrien aurreikuspenak hauek dira::

- Sailkapena: Hiri-lurzorua
- Kalifikazioa: A Bizitegi erabilerako zona.
- Antolamendu xehatuak: A.1. Bizitegi erabilerako zonak Alde Zaharrean

Zumaiako AASS-etako 9.3 artikulua arabera::

“3. Hirugarren sektoreko erabilerak.

Hirugarren sektoreko erabilerei dagokionez, aplikagarria izango da industria erabilerako zehaztutako kategorien banaketa. Horien bateragarritasuna ordenantza hauen III. Tituloko 3.4 kapituluaren araututakoaren arabera zehaztuko da.

Honako hau izango da hirugarren sektoreko erabileren sailkapena:

• Hotel erabilera.

- Merkataritza erabilera.
- Bulego erabilera.
- Aisialdi erabilera.
- Gizarte eta kultur erabilera.
- Osasun eta asistentzia erabilera.

• Hirugarren sektoreko bestelako erabilera batzuk.

Hotel erabileran irabazi asmoa duten era guztietako ostatu emateak sartzen dira; hala nola, ostatuak, hotel egoitzak, motelak, pentsioak eta apartamentu-hotelak.

Erantsitako erabilera edo erabilera osagarri gisa, etxebizitza local bat onartuko da hotel instalazio bakoitzeko; ez, ordea, garaje erabilera. Azken hori berariaz baimendu beharko da kasu bakoitzean.

11. artikulua hau jasotzen du:

011. artikulua. Erabilera globalerako zonetarako eraikuntza eta erabilera erregimen orokorra..

A. BIZITEGI ERABILERAKO ZONAK.

A.1. Bizitegi erabilera zonak alde zaharreen.

2. Erabilera erregimen orokorra.

Erabilera nagusia:

— Etxebizitza.

Baimendutako erabilerak:

— **Komunitate bizitokiak: erabilera horretara soilik gordetako partzeletan, eta arautegi honetako hirugarren tituluko 3.4. kapituluaren ezarritako mugekin.**

— Industria jardueretako erabilerak: lehen eta bigarren kategoriakoak, ezarritako mugak betez, etxebizitza erabilerarekin eta merkataritza erabilerarekin bateratzeko modukoak:

— Hirugarren sektoreko erabilerak.

* Merkataritza erabilerak: berariaz erabilera horretarako bideratutako partzeletan edo etxebizitzetarako partzeletan (beheko solairuan eta, beheko solairuaren osagarri gisa soil-soilik, sotoan eta erdi sotoan).

Kasu horietan, espazio publikoetatik sarbide zuzena izan beharko da, eta ezarritako mugak bete beharko dira.

* Bulego erabilera: areetako ordenantza xehekatuek araututakoaren arabera.

* Aisialdi erabilerak: merkataritza erabilerei parekatuak..

* Hotel erabilerak: Komunitate bizitokirako erabileraren baldintza berdinetan.

3.4 kapituluako 94, 95 eta 96 artikuluek, aldiz, hau jasotzen dute:

3.4. KAPITULUA. HIRUGARREN SEKTOREKO PARTZELETAKO ERABILERARI ETA ERAIKUNTZARI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRAK

094 Artikulua. Eraikitze baldintza orokorrak.

1. Lurzoru urbanoko areetako hirugarren sektoreko erabilera partzeletan Arau Subsidiario hauetako xedapen ordenatzaileak finkatzeko edo exekutatzeko, araudi xehekatuari dagozkion hirigintza fitxetan kasu bakoitzerako ezarritako eraikitze baldintzak bete behar dira.

2. Hegalkinak eta irtenguneak.

Garatzeko indarreko planeamenduan ezarritakoa bete behar da edo, horrelakorik ezean, kasu bakoitzari dagokion indarreko araudi orokorrean oinarritutako proiektu arkitektonikoan ezarritakoa, bai eta 81. Artikulukoak ere, bizitegirako erabilera zonetan daudenetan.

095. artikulua. Erabilera baldintza orokorrak..

• Ohiko erabilera: hirugarren sektorearen bulegoak, hotelak eta merkataritza

• 11 artikuluan, C.1 epigrafean, deskribatutako baimendutako erabilerak:

— Jolas erabilerak.

— 1. eta 2. Kategoriako industria erabilerak.

— Ekipamendu komunitarioaren erabilera, ezarritako salbuespenekin.

— garaje eta aparkaleku erabilerak.

— Bizitegi erabilera.

096. artikulua. Bizigarritasunari, eraikuntza kalitateari, segurtasunari, estetikaren tratamenduari eta domeinuari buruzko baldintza orokorrak.

Indarreko araudia bete behar da, eta, horren osagarri, nagusiki bizitegi eta industria erabilerakoak izan vaina hirugarren sektoreko erabilerak jartzea baimentzen duten partzeletako lokaletan ezarritako baldintzak.

Aurretik aipatu den bezala, indarrean dauden 2004ko AASS-etako AU0.1. “Alde Zaharra” eremuko fitxak Arritokieta kaleko 8.zenbakian kokatutako eraikina (604 Orubea) finkatzen du. Horren antolamendu xehatuaren zehaztapenak finkatzeko, aldiz, eremu osoaren Plan Berezia idatzi eta izapidetzea proposatzen duelarik.

Dena den, egindako kontsultaren erantzunak dioen arabera, AU0.1. eremua Birgaitzeko Plan Berezia bat idatzi eta udaletxean aurkeztu bazen ere, horrek ez zuen behin betiko onarpena jaso.

2. Aldatzen diren elementuak.

Plan Berezi honek hiri-lurzoru bezala sailkatua dagoen partzela pribatu baten kalifikazioa xehatua ezartzen du. Hain zuzen ere bertan hotel erabilera eskusiboa (hirugarren sektoreko erabilera) ezarriko du, hotel ekologiko txiki baten jarduera ezartzeko zein horrekin lotutako hirugarren sektoreko baimendutako erabilerak (ostalaritza negozioa).

Aipatutako lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa 2/2006 Legearen 58.1 artikuluen arabera, zehaztapen hauek indarrean dauden Zumaiako AASS-etan txertatzeak ez du egiturazko antolamendu baldintza ezaugarriarik, dagokion antolamendu xehatuaren izaerari eutsiz.

Horrela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 30. Artikuluen arabera Plangintza Orokorrean txertatutako antolamendu xehatuaren aldaketa Plan Bereziaren edo Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilita aldatu ahal izango da. Kasu honetan hiri lurzoruaren izanik Plan Bereziaren irudia.

Egiturazko antolamenduari ez dio eragiten, antolamendu xehatuaren aldaketa baino ez da, lursail pribatu baten erabilera eskusiboaren definizioari dagokiona. Ez dakar inongo aldaketarik hirigintza eraikigarritasunean ezta etxebizitza kopuruan ere. Hortaz ez zaizkio legeri horiek aplikatuko: 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa; 105/2008 DEKRETUA, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari

buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa ezta 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoa.

3. Ingurumen-Ebaluazio Estrategikoa

Ingurumen-ebaluazioari buruzko Estatuko Legeak eta Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Legeak xedatutakoaren arabera, plan honek ingurumen-ebaluazio estrategikoa igaro behar ez duela ulertzen da. Izan ere, ezin ditu Ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin, ez ditu ezartzen legez ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egin beharko zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrurik eta ezin die eragin Natura 2000 Sareko guneei ezta ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzko legeria edo Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko legeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorrek edo nazioarteko hitzarmenek eragindako ingurumen-babeserako erregimenen bat duten eremuei ere. Hala ere alderdi horren inguruan Ingurumen arloko organoak ebatziko du, hortaz Ingurumen-Ebaluazio Sinplifikatua eskatuko da.

4. Egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa

Agiri honek Egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa jaso behar du, hala xedatuta baitago Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 69. eta 68.d) artikuluan.

Hala ere azterketa horrek Plan Bereziak daukan benetako eskasari erantzun beharko lioke. Izan ere Plan Bereziaren idazketaren xedea hiri lurzoruan kokatua dagoen partzela pribatuaren hotel edo hirugarren sektorearen erabileraren berariazko kalifikazioa da. Horri, gehitu behar zaizkio jabetza bakarra egotea, jarduketa zuzena izatea eta urbanizazio lanik egin beharrik ez egotea (hirigintza zerbitzuak besteak beste partzelan bertan dute hartunea).

Aurrekari horiekin jabeek eraikuntza eta jarduera Proiektua Plan Berezia behin betiko onartu eta hiru hilabete baino gutxiagoko epean aurkeztuko dutela aurreikusten dute.

5. Jarduketaren Ordenantzak.

1. Artikulua. Edukia

Ordenantza honek indarrean dauden Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioen A.U.-01 “ALDE ZAHARRA”n kokatutako Arritokieta kalea 8. Zenbakiko lursailaren Hiri Berrikuntza Plan Berezia arautzen du.

Ordenantza hauek jasotzen ez dituztenei “3.4. Kapitulua. Hirugarren Sektoreko partzeletarako erabilerari eta eraikuntzari buruzko Ordenantza Orokorrak” nagusiki ezarriko zaizkie, baita hauek osatu ditzaketen “3.2. Bizitegi erabilerako partzeletarako erabilera eta eraikuntza Ordenantza Orokorrak”.

2. Artikulua. Indarrean sartzea eta indarrean egoteko baldintzak

Ordenantzok Plan Berezi honen behin betiko onespeneraren akordioa GAOn argitaratu eta hurrengo egunean indarrean sartuko dira eta indarrean jarraituko dute indargabetzen ez diren bitartean.

Ordenantza hauetarikoren bat edo batzuk baliogabetzeak, bertan behera uzteak edo aldatzeak ez die gainerakoei eragingo, baldin eta hauetakoren bat aplikaezina bihurtzen ez bada ezabatu denarekiko bateragarritasun edo dependentziagatik.

Indargabetzearen norainokoa indargabetze hori eragiten duen arauak finkatzen duena izango da.

3. Artikulua. Proiektuaren arau-esparrua

Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan definitutako erregimen juridiko-urbanistikoak osatzen du H.A.P.B. hau garatzeko arau-esparrua. Beraz, agiri honetan berriaz jasotzen ez diren alderdi guztiak aipatutako arauaren arabera arautuko dira.

Hauei eta aurreikusi gabeko alderdiei Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Ordenantza multzoek ezarritakoak aplikatuko zaizkie modu osagarrian.

4. Artikulua. Lurzoruaren kalifikazio xehatua eta erabilerak

Arritokieta kalea 8.an kokatua dagoen eta Plan Berezi honek xede duen partzela hiri-lurzoru bezala sailkatua dago eta hotel erabilera kalifikazioa izango du.

Ostalaritza negozioak eta bizitegi erabilerak erabilera bateragarriak eta onargarriak dira AASS-en Hirugarren tituluko “3.4. Kapitulua.”-ko Erabile tertziarioaren arau partikularrek ezarritako irizpideei jarraikiz –eta Art 9.2 erabilera tertziarioa.

Partzelaren kokapena, mugak eta kalifikazioa III.01 Gráficos-Grafikoak planoan jaso da.

5. Artikulua. Lur-zatia garatzeko eta egikaritzeko araubide juridikoa

H.A.P.B. honen garatze eta egikaritzea jarduketa zuzena bitartez izango da, beraz nahikoa da dagozkion eraikuntza proiektuak aurkeztea; izan ere, dagoeneko urbanizatuta dagoen hiri-lurzoru finkatuko lur-zatia da, lagapenak egiterik beharrezkoa ez delarik.

6. Artikulua. Eremuaren Fitxa berezia.

9,8 metroko zabalera duen partzela laukizuzena

Mugak:

Iparra: jabari publikoko espaloia

Hegoa :jabari publikoko espaloia eta jabari publikoa den Arritokieta Kalea.

Ekialdea: jabari pribatua: 603 partzela, Arritokieta 6 eraikina

Mendebaldea: jabari pribatua: 605 partzela, Arritokieta 10 eraikina

Finkatutako eraikigarritasuna 460 m² (t)

Sestra gaineko profil maximoa BS+1S+EST BI isurialdeko estalkia

Jarduketa mota: Egikaritze zuzena, finkatze, mantentze eta apaintze obra lanak, Proiektua eta Jarduera Proiektuaren aurretiko izapideekin.

Eraikuntza Baldintzak.

Hegalkinak: III.01 Grafikoak planoan jaso bezala eta Zumaiako Planeamenduko arau subsidiarioetako Lurzoruaren eta Eraikuntzaren erabilerarako Ordenantza Orokorrak osagarri.

Estalkia: III.01 Grafikoak planoan jaso bezala eta Zumaiako Planeamenduko arau subsidiarioetako Lurzoruaren eta Eraikuntzaren erabilerarako Ordenantza Orokorrak osagarri.

Berritu eta egungo araudien baldintzetara egokitu ahal izateko termikoki isolatzeko asmoz altxatu ahal izango da, 30 cm gehi estalkiaren elementua (inposta edo perimetroko fatxadetako hormen goiburua mantenduz).

Partzelaren okupazioa, eraikinaren luzera eta zabalera, sotoak, hegalkinak, partzela itxiturak, solairuen altuera libre minimoak eta III.01 Grafikoak planoan jasotzen ez dituenek “3.4. Kapituluak. Hirugarren Sektoreko partzeletarako erabilerari eta eraikuntzari buruzko Ordenantza Orokorrak” nagusiki ezarriko zaizkie, baita hauek osatu ditzaketan “3.2. Bizitegi erabilerako partzeletarako erabilera eta eraikuntza Ordenantza Orokorrak”.

6. Bidegarritasun ekonomiko eta finantzieroaren Azterlana eta Azterketa Ekonomikoa eta Jasangarritasun Ekonomikoa Ebaluatzeko Txostena

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 69 artikuluan, Plan Berezien zehaztapenak Plan Partzialetarako aurreikusitakoen antzekoetan formalizatuko direla esaten da. Plan bereziek agirien edukia, ordea, beren xedera moldatuko dutela ere zehazten da.

Aipatutako dokumentuan, 68. artikuluan, Plan Partzial batek jaso beharreko dokumentu bezala ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bidegarritasunaren azterketa ezartzen da. Azterketa honen helburua indarrean dagoen legedian ezarritakoak jarraituz urbanizazio lanen eta zerbitzuen ezarpenen kostua neurtzea da.


**ZUMAIKO A.U.-01 “ALDE ZAHARRA”-n KOKATUTAKO ARRITOKIETA KALEA 8
LURSAILAREN HIRI BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIA.**

Eremuan urbanizazioaren egikaritzerik ez dagoenez, eta proiektu honen izaera pribatua kontutan hartuz, ez da Azterketa Ekonomikoa eta Jasangarritasun Ekonomikoa Ebaluatzeko Txostenik behar.

Zumaian, 2018.ko uztaila

Abokatua

Igor Cubillo Eguiguren



Arkitektoak (Oreka Arkitektura)

Ekaitz Uribe Rus



Nagore Tolosa Irazusta

